

**LHKREN TXOSTENA, LANGILEEK ENPRESETAN PARTE HARTZEKO LAGUNTZAK EZARTZEN DITUEN JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILBURUAREN AGINDU PROIEKTUARI BURUZ.**

## **Aurrekariak**

Lan Harremanen Kontseilu honetan 2009ko martxoaren 3an, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Azterlan eta Araubide Juridiko Zuzendaritzaren bidez, ñangileek enpresetan parte hartzeko laguntzak ezartzen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuaren Agindu proiektua jaso da, derrigorrezko txostena eman dadin.

## **Gogoeta orokorrak**

Lan Harremanen Kontseiluaren iritzipean jarri den Agindu proiektuak funtsean, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak azken urteetan helburu bera zutela onartzen izan dituen aurretiazko beste agindu batzuen edukia errepikatzen du.

Laburbilduz, langileek enpresetan parte hartzea sustatzeko helburua duten diru laguntza eta laguntza publikoak ditugu aztergai. Agindu proiektuak aurreko urteko Aginduan erabilitako teknika berari jarraiki, enpresa arruntak eta ekonomia sozialeko enpresa izena ematen dienak bereizten ditu, dirulaguntza jaso ahal duten ekintza zehatzak desberdinak baitira, enpresaren izaeraren arabera.

Enpresa arruntetan, honelakoak dira:

- a) Sentsibilizazio ekintzak.
- b) Instituzio partaidetzarako plana ezartzea.
- c) Enpresaren pertsonalak akzioen edo kapital sozialaren partaidetzaren gutxieneko portzentajea bereganatzea.

Eta ekonomia sozialekoetan, berriz, honelakoak:

- a) Enpresan gutxieneko antzintasuna duten besteren konturako langileak enpresako bazkide bihurtzea.

- b) Ekonomia sozialeko enpresa ege zein hitzarmen aginduz lan harremanean beste enpresa baten ordean jarri deneko langileak, ekonomia sozialeko enpresako bazkide bihurtzea.
- c) Bazkide berriak sartzea errazten duten eta belaunaldi erreleburako aukera ematen duten finantzazko tresmak ezartzea.
- d) Erantzukizun sozialeko tresna eta baliabideak prestatu eta ezartzean.

Laguntzak jaso ahal izateko baldintzak eta betebeharrak, onuradunen definizioa, laguntzen zenbatekoa eta tramitatzeko prozedura, funtsean, kasu bakoitzerako 2008ko Aginduak ezartzen zituen berberak dira. Agindu proiektuak aldaketa txikiak ekarri ditu soilik. Aldaketa hauek, ukitzen duten ekintzen arabera, honako hauek dira:

***Laguntzak jaso ahal izateko betebeharrak:***

***Ekonomia sozialekoak ez diren enpresak, instituzio plana ezartzen denean:***

- Oraingoan, eskaera dataren aurreko hamar urteetan ekonomia sozialekoak izan diren enpresak, enpresa onuradunetatik bazter utzirik geratzen dira.
- Era berean, Agindu proiektu berriak, plana materialki gauzatzeko ardura duen aholkulari entitateak eta laguntza eskatu duen enpresak elkarrekin bazkide loturarik ez edukitzea eskatzen du.

***Ekonomia sozialeko enpresak:***

**BESTEREN KONTURAKO LANGILEAK BAZKIDE BIHURTZEAREN KASUAN:**

- Oraingoan ekonomia sozialeko enpresak halakotzat gutxienez urtebeteko antzintasuna edukitzea eskatzen da.
- Zehazki adierazten da, inoiz ez dela diruz lagunduko aldi baterako langileak bazkide bihurtzea, ezta lan harreman hori, aldi baterako kontratu bakarraren zein kateatutako zenbait kontraturen bidez, urtebete baino iraupen lueagokoa bada ere. Egia esan, zehaztapena ez zen beharrezkoa, 2008ko Aginduan mugagabeko lan lotura eta urtebete baino iraupen luzeagoa ezartzen baitziren betebehartzat. Izan liteke honen helburua arauaren esangura indartzea izatea, agian aurreko Aginduaren aplikazioan sortutako interpretazio zalantzak zirela eta.

BELAUNALDI ERRELEBUA SUSTATZEKO BESTE PERTSONA BATZUEN FINANTZAZKO PARTAIDETZA ERRAZTEKO TRESNAK EZARTZEAREN KASUAN (BESTEREN KONTURAKO LANGILEAK EZ DIREN EDO ARAUAK ESKATZEN DITUEN ANTZINATASUN EDO FINKOTASUN ESKAKIZUNAK BETETZEN EZ DITUZTEN LAGILEEI DAGOKIE):

- Ekintza berbera gauzatzeko Administrazioaren beste laguntzaren bat jaso duten ekonomia sozialeko enpresak bazter utzita geratzen dira.
- Beti ere ekintza berriak direla eta, beraz, 2009tik aurrera abiarazi beharko direla argitzen du.
- 2008ko Aginduak aipatzen zituen "diruz lagundutako jarduerak egiten dituzten erakunde bazkideen izenean, horiek ordezkatzeko dituzten erakundeak" bazter utzita geratzen dira entitate onuraduntzat.

Gainerakoan, Agindu proiektu hau, aurrekoa, hau da, 2008ko Agindua, bezalakoxea da.

### ***Forma eta dokumentu betebeharrak:***

Agindu proiektu berriak zenbait aldaketa dakartza, halaber, aurrekari hurbilentzat duen 2008ko Aginduaren aldean, laguntza eskaerak tramitatzeke forma betebeharrei eta behar den dokumentazioari dagokienez. Aldaketa hauek, dena den, ez dira garrantzi handikoak behin ere.

- Lehendabizi, akzioak edo bazkide partaidetza bereganatzeko laguntzetan, oraingoan dokumentazioaren barruan, halakoak bereganatzen dituzten langileen langile bizitzari buruzko txostena eskatzen da, enpresan urtebete baino epe luzeagoan mugagabeko langile direla egiaztatzeke.
- Bigarrenez, ekonomia sozialeko enpresetako bazkide bihurtzearen kasuan, Altxortegi Nagusiaren egiaztatzea eskatzen da espresuki, bazkide bihurtuko dena urtebete baino epe luzeagotik mugagabeko langilea dela egiaztatzeke.

Azkenik, beharbada, nabarmendu egin behar da Agindu proiektu berriak ez duela bere baitan biltzen, 2008ko Agindua zela eta LHKko Txosten Batzordeko kideek norberaren alegaziotzat egin zituzten iradokizun edo adierazpenetatik bat ere.

## **Txosten Batzordeko kideen ekarpenen laburpena**

### ***Confebaskek izendaturiko kideenak:***

Agindu proiektua funtsean 2008ko berbera dela ikusirik, orduan egin zituzten alegazio berberak egiten dituzte oraingoan ere. Alegazioak honela labur daitezke:

- Azken laguntza programetan agertuz joan diren aldaketak direla eta, partaidetza mota eta partaidetzak hartu behar duen forma baldintzatuz joan baitira, egiten duten balorazioa ez da Agindu proiektuaren aldekoa.
- Partaidetza modu zehatz-zehatz bat sustatzea proposatzen da soilik, erabakitzeko organorik gorenetan parte hartzea eta akziodun bihurtzea, alegia, izan daitezkeen beste aukera asko kontuan hartu gabe.
- Agindu proiektuaren 2.2 artikuluan aipatzen den planaren edukiari dagokionez, ulergarria iruditzen zaie plan hori enpresak eta honen enplegatuek adostu behar izatea eskatzea (5.2 artikulua), baina ez diote egoki irizten laguntza enpresako erabakitzeko organo gorenetan parte hartzearen arabera soilik baldintzatzea.
- Sailak ontzat eman duen enpresako partaidetzarako diseinua enpresa mota guztiei zuzenduta dago, baina ekonomia sozialaren mundutik diseinatu ahal dena bezalako ikuspuntu ardaztua erabiliz diseinatu da; eta ez daude ados horrekin.

Hala eta guztiz ere, Agindu proiektu honi dagokionez zehazki, gai bi aipatu nahi dituzte bereziki.

- Agindu proiektu hau Ekonomia Sozialari buruzko 2007-2009 aldirako gogoeta estrategikoan kokaturik dago. Estrategia hau luze eta zabal eztabaidatu dute sektoreko instituzio ekintzaileek, enpresaburuak multzoaren ordezkariak dutenek parte hartu ez dutelarik; gainera, berriz adierazi nahi dute, Agindu proiektu honen edukian, aurreko aginduetakoan bezalaxe, eragile ordezkari hauek LHKn egin dituzten honelako laguntza programari buruzko ekarpenak ez direla kontuan hartu.
- Egia esan ekonomia sozialeko enpresei edota, halakoak izan gabe, langileen partaidetzari dagokionez ekonomia sozialeko enpresen antzekoak direnei zuzenduta dagoen Aginduaren izena ematerakoan, izenburu nahasia erabili da. Haien ustez, Agindu hau ekonomia sozialeko enpresei zuzendu beharko litzaioke soilik, areago, Agindu proiektuan egin diren aldaketa gutxiak, ekonomia irekian dauden enpresek honelako laguntzak jaso ahal izatea are zailagoa egiten dutela kontuan harturik.

### **CCOOk, LABk eta UGTk izendaturiko kideenak:**

Eduki bereko aurreko proiektuak zirela eta egindako alegazio berberak egiten dituzte orainoan ere: langileen partaidetza bultzatzeko, enpresako ordezkariak bateratu eta sindikalen informazio, kontsulta eta negoziazio eskubideak indartu eta zabaldu behar direla. Eta kapitala erosi eta erabakitzeko organoetako partaidetza finantzatzeko diru publikoa erabiltzearen kontra daudela adierazi dute.

Honezaz gainera, CCOOk izendaturiko kideak bere buruari, Kontseilu honi urtero Agindu berbera aurkeztea arrazoizkoa ote den galdetzen dio, ondorengo arrazoiengatik, galdetu ere:

- Agindu honek aurreko urteetan sortu dituen emaitzak ez dira ezagutzen.
- Ez dirudi proposatzen diren aldaketak egokitasun arrazoiek eragin dituztenik; alderantziz, badirudi haien motiboa kudeatzaileek programan espero dituzten desdoitzeak direla (datu hau ezezaguna da).
- Eta txosten teknikoan adierazi denez, Batzordeko kideek egindako iradokizunak ez dira kontuan hartu.

### **Azken gogoetak**

Lan Harremanen Kontseiluko Txosten Batzordeko kideek, 2009ko martxoaren 11n bilduta, berretsi egiten dituzte, lehendabizi, kontsulta prozeduran zehar egin dituzten eta txosten honen ekarpenen laburpeneko atalean jaso diren alegazio partikularrak. Hala, LABk eta UGTk izendatutako kideek, euren aldetik, berriro ere esan zuten haien ez dutela berariazko alegaziorik egin, Agindu proiektu honen aurrean duten jarrera, proiektu honek funtsean errepikatu baino egiten ez dituen Sailaren aurreko aginduak zirela eta agerrarazi zutelako.

Bigarrenez, Txosten Batzordeko kideek argi utzi nahi dute ez dutela ezagutzen, alde batetik, orain arte honelako aginduen babesean abiarazitako partaidetza programen norainokoa, aurreko aldietan honelako ekimenen emaitzei buruzko datuak edukitzea beharrezkoa edo komenigarria zela adierazia zuten arren; eta beste alde batetik, argi utzi nahi dute, honelako partaidetza ekimen hauen enfokeari buruz kontsulta jardura gauzatzean lehen egin ziren gogoetatik bat bera ere ez dela kontuan hartu, ez aurretiaz egin diren arau xedapenen testuan, ezta orainoan berriz ere txostena egiteko aurkezten den honetan ere.

Bilbo, 2009ko martxoaren 16a